

Palestinan guztion etorkizuna dago jokoan



ANDREA BARTOLO
AZET ETXEBIZITZA
SINDIKATUKO KIDEA

Israelek Palestinaren aurka abiatutako genozidioa eta garbiketa etnikoa ikusten ari gara, zuzenean eta telebista bidez. Milaka pertsonaren erailketa, ospitale eta eskolen bonbardaketa eta derrigorrezko hamaika desplazamenduren lekuko izaten ari gara, “Nazioarteko Komunitatearen” justifikazio eta konplizitatearekin, “terrorismoaren aurka Israelek duen defentsarako eskubidearen” izenean.

Duela urte batzuk herri palestinarra terrorista lez izendatzea pentsaezina izango zen gurean. Duela urte batzuk inork ez zuen zalantzan jarriko herri palestinarrak kolonialismo sionistaren aurka duen *matxinadarako eskubidea*, zuzenbide-burgesak ere onartzen duen eskubidea, alegia. Izan ere, eskubide hura 1948ko NBEren Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsean aitortuta dago, eta NBEk berak behin baino gehiagotan aldarrikatu izan du.

Nola gauzatu da, beraz, paradigma-aldaketa? Erantzuna topatzeko 2000ko hamarkadara jo beharko genuke, “terrorismo globalaren aurkako” ofentsiba inperialistak utzitako putzu ideologiko eta kulturalera. Terrorismoaren aurkako paradigma hura inposatuta, inperialis-

Palestinan
erresistentziarekin bat
egiteak esan nahi du
munduko herri langile
guztien borrokarako
eta emantzipaziorako
aukera babestea

moak matxinadarako eta erresistentziarako eskubidea, *de facto*, indargabetu zuten. Erresistentziarako eskubidea XX. mendeko klaseen arteko indar-harremanei esker lortu zen –eskubide konkretu eta sozialista gisa, eskubide abstraktu burgesei kontrajartzen zaiona–. Gure klaseak, faxismoaren aurkako borrokaren eta borroka anti-kolonialen bitartez, burgesiari inposatu zion eskubidea da; 1960ko hamarkadatik aurrera askapen nazional eta sozialeko borroken oinarria eta borroka internazionalista globalaren printzipioa izan da.

Gaur egun, ordea, eskubide horren desintegrazioaren lekuko izaten ari

gara. Marxek esaten zuen moduan “eskubideen arteko talkan, indarrak erabakitzen du”; eta gaur egun inperialismoak bere eskubidea berriz inposatu digu: kolonizatze eta desjabetzeko eskubidea. Eta horren aurka matxinatzen dena “terrorista” egiten du.

Palestinan paradigma horren aldatzeko dakartzen ondorioak gordinenak ikusi ditugu: Israelgo Estatu supremazista eta kolonialari “defentsarako eskubidea” aitortzen zaio, eta kolonialismoaren eta apartheidaren aurka borrokatzen duen herri palestinarra “terrorista” izendatzen dute. Eta horrek guztiak Palestinako mugak gaintzen ditu eta munduko herri langile guztientzako abisu bihurtzen da: inperialismoak erresistentziarako eskubidea baztertu du, Mendebalde kolektiboaren “arauetan oinarritutako munduaren” azpian lurperatuta.

Horregatik guztiatik, Palestinari elkartasuna ematea, inolako ñabardurarik gabe, munduko langileriaren betebeharrak ukatzina da, Palestinan erresistentziarekin bat egiteak esan nahi duelako munduko herri langile guztien borrokarako eta emantzipaziorako aukera babestea. ●

Zozoak beldari
PODCAST SAIOA

IKUSI NAHERAN SPOTIFYN

hamaika